

1. BALIOA EDO BALOREZKO PROPOSAMENA

Esan beharra dago ez dugula lehiakide zuzenik izango, ez daudelako jatetxeak aukeratzeko aplikaziorik. Hori bai, beharbada, filtroen erabilpena izan ahal da gako-xehetasuna gure aplikazioa erabiltzeko eta ez beste batzuk.

Honekin batera, aukeratuko gaituzte batez ere eskaintzen duguna ez duelako beste inork eskaintzen eta oso erabilgarria delako nahiak eta beharrak asetzeko, gustuko edo nahi dituzun erosotasunak izanda.

Filtro batzuen esker, zure jatetze ideala aukeratuko ahal izango duzu. Momentu honetan ez da existitzen inon ere ez eta eskaintzeko elementu erabilgarria izan ahal da, berriztailea eta modernoa. Horrekin, behar duzun guztia filtroen bidez aukeratu ahal izango duzu (gastatu nahi duzun dirua, hurbiltasuna, jatetxe mota,...) eta hori dela eta eskaintza ona emango dugula esan dezakegu.

Hau dela eta, hainbat gauzetan desberdindu ahal gara:

- **BERRITASUNA:** Gure aplikazioa ez denez existitzen eta beharrezkotzat hartzen dugunez, oso baliogarria dela esan dezakegu, askoz errezagoa izan ahal delako jendearentzat non jatea erabakitzea, beraien nahiak eta beharrak asetzen dituzten ezaugarriak filtratzen aplikazioan.
- **PRESTAZIOAK/EZAUGARRIAK:** Ezaugarri berriztagarri batzuk izango ditu: Edozein jatetxera joateko aukera izatea edozein prezio-tara jan ahal izateko aukera izateko (gosaria bada 10 eurotik behera, bazkaria bada edo oso merke edo adibidez laneko meeting edo hitzordua izatekotan prezioa altuagoa izan ahal da edo azkenik luxuzko jatetxe batera joateko aukera dago ere bai bazkaltzeko bai afaltzeko).

Bestetik, modu honetan ez dira egongo inolako problemarik jateko leku bat aurkitzeko, geolokalizazioarekin joango delako; hau da, zauden lekutik jatetxe hurbilagoenak aurkitzeko aukera izango duzu, zenbat metro eta denbora behar duzun horra joateko edo hobeto esanda, filtroen laguntzaz zure lokalizazioa jartzeko aukera izango duzu ere bai.

- **PERTSONALIZAZIOA:** Esan dugunez bezala, filtroen erabilgarritasuna berebizikoa izango da eta aplikazioaren helburu nagusia hori bera da, jatetxeak aurkitzea bakoitzaren gustuak eta nahiak jakinda eta aukeratuta, hau da, pertsonalizatua egongo da jendearen arabera, sare sozialetan bezala (agertzen diren
- **LANA ERRAZTEA (ZERBITZU GEHIGARRIAK):** Jateko oso erraza izango duzula, aplikazioa filtro asko dutenez, oso erraza izango da nahi duzun lekuan jatea, menu bat izango du indize modukoa, ikonoetan click egiteko,...
- **DISEINUA:** Booking.com-en antzekoa (menu bat izango du sarrerarekin, ikono desberdinak agertuko dira click egin ahal izateko, informazio ugari egongo da jatetxe

bakoitzarentzat; hau da, jakin ahal izango duzu non dagoen, zelakoa den, zer janari mota-eskaintzen duen, ea gosaltzeko, jateko eta afaltzeko aukera duzun, zelako balorazioa izango duen,...)

- **MARKA/ESTATUSA/ESKLUSIBITATEA:** Ez dagoenez lehiarik aplikazio hau bezalako beste batzuk ez daudelako (Booking izan ezik, baina horrek beste sektore batean aritzen denez), izango duen eskusibitate urte batekoa izango da; hau da, urte batean ezin izango du inork ideia kopiatu edo datuak lapurtu antzeko aplikazio bat sorrarazteko.

Gainera, estatus altukoa izateko helburua izango dugu, merkatuan ez dagoenez antzeko aplikaziorik lehia egin ahal izateko hautabidea duena, merkatu kuota osoa bereganatuko genuke eta beraz, arrakastatsua bihurtzeko posibilitatea altua izango litzateke.

- **PREZIOA:** Aplikazioa doainik izango da jende guztia erabiltzeko aukera izateko. Egia da iragarkiak agertu ahal direla, agertzen diren produktuak erostearekin batera edo jatetxeak aukeratzen eta erreserbatzen duzun momentuan iragarkian klik eginez eta beste leiho batera zu bidaltzen. Hori bai, premium zerbitzuarekin, ez dira iragarkirik agertuko, eta bestelako hobekuntzak izango dituzu (hilabetero 9,99 euro, 3 hilabetero 30 eta urtero 50):
- **ARRISKUAK MURRIZTEA/SEGURTASUNA:** Cookiak onartu. Zure lokalizazioa bakarrik erabiliko du beharrezkoa denean, eta datu pertsonalak bakarrik erreserba bat egiten duzunean.
- **ESKURAGARRITASUNA/BANAKETA:** Apple store, google play edo interneten webgune baten bidez deskargatuko ahal izango da.
- **ERABILERRAZTASUNA:** Nahi duzun filtroak aplikatu eta zenbait jatetxe agertuko dira, nahiko erreza izango da, mota guztietako jendea erabiltzeko modukoa; zein haurrak zein helduak zein adinako jendea.